



Bike taldeko kide bakoitzak askatasunez hautatu du bertsioa egiteko kantua. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

Ulisesen sindromea

Kritika

Antzerkia
'Diaspora bidaian'

Konpainiak: Theatre du Versant, Oihulari klown (Euskal Herria), Contrajuego (Venezuela), Le Cochon SouRiant (Quebec), Ayizan (Haiti).
Zuzendaritza: Gael Rabas, Orlando Arocha. **Lekua:** Baionako Eszena Nazionala. **Eguna:** Azaroak 20.

Agus Perez

Sarrionandiaren hitzetan, bere herritik urrun dagoen Ulisesen sindromea dauka, *anatotipiko* bihurtzen da, eta terminoaren esanahi adierazteko anakroniko hitzarekin egiten du konparazioa. Miarrizkeko Theatre du Versant-ek plazaratu berri duen *Diaspora bidaian* antzezlanaren muina hori berori da, eta emanaldian zehar hiru euskal idazleren kontakizunak antzetzten dira: Bernardo Atxagaren *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, Pier Paul Berzaitzek *Urhurburu anaien historiari buruz idatzitakoa* eta Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua*.

Atxagaren kontakizunak euskal artzainek Idahon bizi izandako bakardadea eta deserrotzea jasotzen ditu Old Martinen pertsonaiaren bidez, eta agertokian oparotasunaren ikonoa zen hozkailuak hartzen du protagonismoa, pantomima kutsua duen eszenaren erdian. Berzaitzen larria, ordea, XIX. mendearen hasieran kokatzen da, eta haren bidez Darwin, Simon Bolibar edota Etxahun bezalako pertsonaien

berri izango dugu narrazio hutsean oinarritutako bi eszenatan. Azkenik, Sarrionandiaren *Lagun izoztua*-k erbestearatu politikoen deserrotzearen disezio poetikoa egiten du, eta dekorazioan triptikoetako giza paisaiaren behin-behinekotasuna jasotzen da.

Ikusten denez, oinarritzko planteamendua askotarikoa izan da, eta horrez gain, Euskal Herriko eta Ameriketako bost konpainiak parte hartu dute eszenaratzean. Eszena gidaritza ere bertoko eta Venezuelako zuzendari banarean pean egon da, eta gainera, emanaldian zehar frantsesa eta euskara tartekatuta dira, batzuetan aldi bereko itzulpen idatziak baliatuz, eta beste batzuetan esan osteko ahozko esaldiak beste hizkuntzan errepikatuz. Bi kasuetan irudimentesuak izan dira erabilitako sistemak, baina oihal gaineko proiektzioek ez dute ontsa funtzionatu eta hori dela-eta asko zaildu da hitzen esanahi osoa ulertzea.

Ikuskizuna, oro har, ez da behar den beste oinarritu antzezpenean sendotasunean, eta zenbait momentutan *Batek mila* famatu hark eman zigun pilaketa sentsazio beru utzi digu. Gauzak horrela, balio handikotzat jo daitezke euskara eta euskaldunen kontuak frantses eszenaren parean jartzeko ahalegina eta Euskal Herriko konpainiak munduko beste batzuekin elkarlanean jartzeko ekimena, baina zeregin horietan benetako arrakasta lortu nahi izanez gero, are gehiago zaindu beharko ditugu deklamazioa, elementu eszenikoen esanahia eta zorrotzasun estetikoak.

Zahar ez dena gaztetuz

80ko hamarkadan RRV mugimenduan ezagun egindako kantu zenbait bertsio elektronikoa kaleratu ditu Bikek

Garikoitz Goikoetxea Bilbo

Oraindik ez dira zahartu, baina gazteagotu egin nahi izan dituzte. Bike Bilboko Kolektibo Elektronikoa ukitu berria eman nahi izan die 1980ko hamarkadan RRV Rock Radical Vasco mugimenduan ezagun egindako taldeen kantu klasikoenei. Hamar abesti hautatu, eta haien bertsio elektronikoa egin dituzte. Bike taldearen hirugarren bilduma lana da, *Bike 3. Oizenekoa*.

Bike taldearen aurreko lanekin alderatuta, desberdina da kalera berri dutena. Orain arte, taldeko kideek sortutako musika bildu, eta bilduma moduko lanak kaleratu dituzte. Aurreko bi diskoak gisa horretakoak izanik, aldatu beharra zutela nabarmendu du taldeko kide Unai Gonzalezek: «Aspertuta geunden beti gauza

bera egiteaz». Hartara, «beste kontzeptu bat» bilatu dute, eta 1980ko hamarkadako RRV mugimenduko kantuen bertsioak egin dituzte. Haietako gehienek ezaguna dute musika, gaztetxo zirela kantu horiek entzuten baitzituzten: «Haien bertsioak egitea naturala iruditu zitzaigun».

1980ko hamarkadako RRV mugimendua jorratzea erabaki zutenean, zerrenda luzea osatu zuten. Taldeko kideek askatasuna izan dute nahi duten taldea eta kantua aukeratzeko: «Hemen ez dago legerik; norberak aukeratu du nahi zuena», adierazi du Gonzalezek. Hori bai, saiatu dira talde beraren inguruan disko osoa ez egiten; eta, izatez, talde bakoitzeko kantu bat soilik ageri da diskoan.

Denak ezin, eta hamar talde eta abesti sartu dituzte: *Mata la Música* (Eskorbuto), *Zaramaren erdian* (Zarama), *Escupe* (Cicatriz), *Me gusta ser una zorra* (Las Vulpes), *Ya no quiero ser yo* (La Polla Records), *Ikusi eta ikasi* (Delirium Tremens), *Pakean utzi arte* (Hertzainak), *Sarri sarri* (Kortatu), *Animal caliente* (Barricada), eta *Terrorismo policial* (RIP).

Aurretik sortutako kantuak izanagatik ere, «hutsetik» abiatu behar izan dute Bike taldeko kideek. Hogeita hamar urte inguru dira kantuak grabatu zirela, eta jatorrizko euskarriak galduta edo kalitatea oso txartuta daude. Hamar kantuetatik, RIP taldearen *Terrorismo policial* kantuaren jatorrizkoa soilik izan dute eskura. Gainerakoak oso-osorik sortu behar izan dituzte berriz, baina lautan laguntza berezia izan dute. Zaramako Roberto Moso, Las Vulpesko Mamen Rodrigo, Delirium Tremenseko Andoni Basterretxea eta Barricadako *Drogas* lanekide izan dituzte eta. Emaitzarekin gustura dira Bikeko kideak, orain arteko lanek «kohesioa» osatu dutelakoan.

Egileak gustura dira, eta jatorrizko musika egin zutenak ere bai. Izatez, Bikeko kideak beldur ziren musikariek nola hartuko ote zuten proiektua. «Musika elektronikoa inguruan konplexu asko dago oraindik ere, maiz drogarekin lotzen delako». Baina, oztipoak oztipo, jatorrizko musikaren egileek «ondo» hartu dituzte bertsio elektronikoa.

elso
MEDOLAN

Azaroak 21, FINAL AURREKOA
GERNIKA 17:00etatik aurrera

Azaroak 22, FINAL AURREKOA
IRUÑEA 17:00etatik aurrera

hasieratik burura zuzenean, gurean soilik

infozazpi

Egunkaria
libre!

jaialdia
KURSAALEAN

SARRERAK AGORTUTA

Azaroak 23
arratsaldeko 19:00etan

ANARI
ANJE DUHALDE ETA NIKO ETXART
MIKEL URDANGARIN ETA JOSU ZABALA
PANTXOA ETA PEIO
GORKA URBIZU
OSKORRI
ERRAMUN MARTIKORENA ETA JEAN MIXEL BEDAXAGAR
KEN ZAZPI
TXOMIN ARTOLA ETA AMAIA ZUBIRIA
RAFA RUEDA
URKO
...eta beste zenbait gonbidatu

Sarrerak salgai,
hitzetan eta elkar liburu dendetan: ekr hitza®